

auzo auzo • auzo auzo • auzo auzo

altza


# Harriako lapurretak

azken hilabeteetan Harria parke joku eta berdegune politak bertan behera gelditu dira gauero parkearen goikaldera hurbiltzen diren gaizkileengatik. Gaizkile hauen okupazio berria Harria parkea apurtzea eta inguruko etxeen aurkako ekintzak egitea baita.

Hori dela eta, segurtasuneko goardia bat ipini zuten baina honek ere gaizkileen harrikadak jasan zituen.

Azken egunetan lapur talde txiki bat ertzantzaren eskuetan erori bada ere, oraindik apurketek jarraitzen dute. Hori dela eta, mesedez eskatzen da, Harria parkea gauzez zaindua egon dadila.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Harria parkera gauzez hurbiltzen diren batzuren denborapasa berria harriak botatzea da.

## Ostadarren lokal berria

Ostadar emakume taldeari bukatu zaio orain arte zuen leku arazoa. Izan ere, lehengo astean eman baitzic Donostiako Udalak lokal berria Larratxon. Orain, emakumeek ekintza gehiago antolatu ahal

izango dituzte eta hori argi utzi zuten egoitza berri honen aurkezpen egunean.

Bestalde, emakume hauen laguntzarekin Martuteneko Presondegiko emakumeek egindako lanak ikusgai izango dira

datorren astelehenetik aurrera, hilak 8, eta arratsaldeko 18.00etatik hasita Loiolako Kultur Etxean. Bertan, presoek eskulanak izango dira protagonista nagusiak.


LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

## gros-ulia

**Pakea eta Zuzentasuna** tailerra izango da maiatzaren 8an hasi eta 14ra bitartean. Mariaren Bihotza ikastolako arto nagusian egingo da tailerra arratsaldeko 20.00etan.

**Don Planchon** izenez, duela hiru aste ireki da Tomas Gros kalean plantxa zerbitzua duen establezimendu berria. Esate baterako, gona edo galtza bat plantxatzea 200 edo 375 pezeta kostatzen da. Erropaz gain, serbiletak, mantelak, zapiak, toallak, etabar plantxatzen dira. Plantxatzeko gauzak hara eraman edo etxera joaten dira bila eta handik 3 edo 4 ordutara egina dago.

**Javier Gonzalez Sarmiento** pianojolea ikastaro bat ematen ari zaie Noroabe eskolako irakasleei pianoaren pedagogiaz.



Argazkia: Ximon

### Oroigarri berria?

Hemen dugu Zurriolako barandila berria, hemendik aurrera ez da Kontxakoaz soilik hitzegingo. Uda honetatik aurrera, gaurko moldez diseinaturiko barandaua, 1.100 metroko pasealekuaren osagarria izango da. Bere diseinatzailea Uzkanga izan da, eta laister zuriz pintatuko dute.